Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala | Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko otsailaren 4a, asteartea — 22 — Martes, a 4 de febrero de 2025

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZPEITIKO UDALA

*Azpeitiko herrian 2025 .urtean egingo diren herri festetako programen garapena finantzatzera zuzendutako dirulaguntzen oinarri eta deialdia. BDNS (Identif.): 809900.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/809900).

1. *Xedea.*

Oinarri hauen helburua da Azpeitiko auzoetan herri-festen programen garapena (antolaketa, ospatzea eta zabalkundea) finantzatzera zuzendutako dirulaguntzak ematea arautzea.

Azpeitiko Udalak egiten dituen ekimenen osagarri edo haien ordezko diren ekimenak lagundu ahal izango dira diruz, betiere erabilera publikoko edo gizarte-intereseko izaera badute, eta deialdi honetan zehazten diren baldintzak betetzen badituzte.

Dirulaguntza hauek ematerakoan, eta onuraduna eta era- kunde emailea elkarrekin lotuko dituen harreman juridikoa finkatzerakoan, oinarri hauek eta dirulaguntzak ematen direnean indarrean diren arauak bete beharko dira:

— Azpeitiko Udalak dirulaguntzak emateko ordenantza arautzailea (2022ko urtarrilaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 16. zk.).

— Azpeitiko Udalaren dirulaguntzen 2023-2025 Plan Estrategikoa (2023ko martxoak 1eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 41. zk.).

Oinarri hauetan aintzat hartu ez diren kontu guztietarako, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta Lege hori garatzeko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Arautegiak diotena hartuko da kontuan.

2. *Diru-baliabideak.*

Programa honen bidez 2025eko aurrekontu-ekitaldirako laguntzen zenbatekoa 56.000,00 €-koa da, Auzoetako festetarako dirulaguntzak transferentzia arrunten 1.0800.481.334.00.01 aurrekontu-partidaren kontura finantzatuko da.

Aurrekontu-zuzkidura ez bada iristen eskabide guztiak estaltzera, ezarriko den baremoaren arabera, emakida osoari dagokion hainbanaketa aplikatuko da.

3. *Erakunde onuradunak.*

Deialdi honen lehenengo artikuluan zehaztutako helburuak lortzera bideratutako ekimenak sustatu edota interes orokorreko jarduerak egingo dituzten irabazi asmorik gabeko pertsona fisiko zein juridikoek, publiko zein pribatuek, eskatu ahal izango dituzte dirulaguntzak.

Onuradunek Azpeitiko Udalak dirulaguntzak emateko egindako ordenantza arautzailearen 12. artikuluan eskatutako baldintzak bete beharko dituzte (2022ko urtarrilaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 16. zk.).

## AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

*Bases y convocatoria de subvenciones destinadas a financiar el desarrollo de los programas de fiestas populares en los distintos barrios de Azpeitia durante el ejercicio 2025. BDNS (Identif.): 809900.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/809900).

1. *Objeto.*

Es objeto de la presentes bases la regulación de concesión de las subvenciones destinadas a financiar el desarrollo de programas de fiestas populares (organización, celebración y difusión) en los distintos barrios de Azpetia.

Será subvencionable el desarrollo de las iniciativas que, siendo complementarias o sustitutivas a las iniciativas que lleva a cabo el Ayuntamiento de Azpeitia, conlleven una finalidad de utilidad pública o interés social y cumplan las condiciones que se establecen en la presente convocatoria.

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre la persona beneficiaria y la entidad otorgante se regirá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión:

— Ordenanza Reguladora de la Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Azpeitia (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 16, de 26 de enero de 2022).

— Plan Estratégico de subvenciones 2023-2025 del Ayuntamiento de Azpeitia (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 41, de 1 de marzo de 2023).

En todo lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación la Ley 38/2003 de 17 de noviembre General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006.

2. *Recursos económicos.*

El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa en el presupuesto del ejercicio 2025 asciende a la cantidad de 56.000,00 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria 1.0800.481.334.00.01 Subvenciones ordinarias Fiestas.

Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de las solicitudes según el baremo que se establecerá, se aplicará el prorrateo correspondiente al total de la concesión.

3. *Entidades beneficiarias.*

Podrán solicitar subvenciones las personas físicas y jurídicas, públicas o privadas, sin ánimo de lucro, que realicen una actividad de interés general o que promueva la consecución de los fines establecidos en el artículo primero de la presente convocatoria.

Los beneficiarios deberán reunir las condiciones exigidas en el artículo 12 de la Ordenanza Reguladora de la Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Azpeitia (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 16, de 26 de enero de 2022).

EK\CV GAO-I-2025-00391

*4. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.*

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak eta oinarri hauetan ezarritako epean egiten direnak. Betiere, azaroaren 17ko dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

*5. Baztertzeak.*

Deialdi honen bidez lagunduko diren ekintzetatik kanpo geratuko dira honako jarduerak:

a) Azaroaren 17ko 38/2003 dirulaguntzetako Lege Orokorraren 13.2. eta 13.3. artikuluetan aurreikusitako egoeraren batean sartuak daudenak.

b) Bere izaera eta helburuengatik beste udal arlo edo erakunde autonomoren baten programa baten edo batzuen bidez bideratu behar zirenak. Dena den, horrelakoetan, dagokion erakunde edo udal arloetara bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

c) Ez dira aintzakotzat hartuko Konstituzioak 14. artikuluan jasotzen dituen eskubideen aurka doazen elkarte edo erakundeetatik datozen proposamenak (jaiotzagatik, arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik edota iritziagatik diskriminatzea).

*6. Diruz lagungarri diren jarduketei ekiteko eta amaitzeko epea.*

Jarduerak diruaguntza ematen den urtean hasi eta amaitu beharko dira.

*7. Dirulaguntzetarako eskaerak aurkezteko modua, epea eta aurkeztu beharreko agiriak.*

7.1. Aurkezteko modua.

Parte-hartzaileek bi bide hauetako edozein erabiliz aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak:

— Aurrez aurre: eskabideak Azpeitiko udal-erregistroan aurkeztuko dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organo, establezimendu edo bulegoetan.

— Bide elektronikoa: eskabideak udalaren egoitza elektronikoan aurkeztuko dira, haren webgunearen bidez, edo 2025eko ekitaldiko laguntzen eta dirulaguntzen ataletik –izapidetzen ari diren laguntzak–, edo on line izapideen ataletik –dirulaguntzak–.

7.2. Aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea zabalik egongo da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita, eta festen egitaraua hasi baino hilabete lehenago bukatuko da. Nolanahi ere, festak jadanik ospatu badira, aurkezpen epea hilabetekoa izango da aipatutako iragarkia argitaratzen den egunetik hasita.

7.3. Dokumentazioa.

Erakunde eskatzaileak ez du aurretiaz Azpeitiko Udalari aurkeztutako agiririk aurkeztu beharko. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Dokumentazioa lortzea materialki ezinezkoa den kasuetan soilik, organo eskudunak eskatzaileari eskatu ahal izango dio dokumentuak aipatzen dituen betekizunak aurkezteko edo, bestela, beste bitarteko batzuen bidez egiaztatzeko.

Halaber, interesdunek eskubidea dute Administrazio jardulearen esku dagoen dokumentazioa edo beste edozein administraziok egindakoa ez aurkezteko, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluaren arabera. Azpeitiko Udalak zuzenean eskatuko dizkio sektore publikoko edozein erakunderi oinarri orokorretan eta espezifikoetan eskatzen diren

*4. Gastos subvencionables.*

Se consideran gastos subvencionables aquellos que respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada y se realicen en el plazo establecido en las presentes bases. Siempre de acuerdo con lo previsto en el artículo 31 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

*5. Exclusiones.*

Quedan excluidas del ámbito de aplicación de la presente convocatoria las siguientes actividades:

a) Aquellas en las que concurra alguna de las circunstancias previstas en el art. 13.2 y 13.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

b) Aquellos que por su naturaleza y objeto debieran haberse acogido a otros programas de otros departamentos municipales u organismos autónomos. En todo caso se dará traslado de la solicitud al departamento u organismo correspondiente comunicando tal circunstancia al interesado.

c) No serán consideradas las propuestas provenientes de asociaciones o entidades que conculquen derechos constitucionales, art. 14 (discriminación por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión).

*6. Plazo de inicio y finalización de las actuaciones subvencionables.*

Las actuaciones deberán comenzarse y finalizarse en el año de la concesión de la subvención.

*7. Forma de presentación de las solicitudes de subvención, plazo y documentación a presentar.*

7.1. Forma de presentación.

Las personas participantes podrán presentar sus solicitudes utilizando cualquiera de estos dos canales:

— Canal presencial: las solicitudes se presentarán en el Registro municipal de Azpeitia o ante los órganos, establecimientos o dependencias previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

— Canal electrónico: las solicitudes se presentarán accediendo a la sede electrónica del Ayuntamiento a través de su página web, o bien desde el apartado de ayudas y subvenciones ejercicio 2025 –ayudas en tramitación–, o bien desde el apartado de trámites on line –subvenciones–.

7.2. Plazo de presentación.

El plazo de presentación de solicitudes se abrirá desde el día siguiente de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará un mes antes del comienzo del programa de fiestas objeto de subvención, salvo que previamente a la publicación se hayan celebrado las fiestas, en cuyo caso el plazo de presentación será de un mes a partir de la indicada publicación.

7.3. Documentación.

La entidad solicitante no estará obligada a presentar los documentos que hayan sido aportados anteriormente al Ayuntamiento de Azpeitia. A estos efectos, el interesado deberá indicar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los citados documentos de conformidad con lo previsto en el artículo 28.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre. Solo en los supuestos de imposibilidad material de obtener la documentación, el órgano competente podrá requerir al solicitante su presentación o, en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento.

Asimismo, los interesados tienen derecho a no aportar la documentación que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración según el artículo 28.2 de la ley 39/2015 del procedimiento administrativo común. El Ayuntamiento de Azpeitia recabará directamente de cualquier entidad perteneciente al sector público

EK\CV GAO-I-2025-00391

baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak. Hala ere, eskatzaileak aurka egiteko eskubidea du, eta aurka egiten badu, aurka egiteko arrazoiak justifikatu beharko ditu (Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua).

Oro har, eskabidearekin batera (eskabide-eredu normalizatua), agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Eskatzailearen eta/edo ordezkariaren Nortasun Agiriaren kopia.

2. Erakundearen IFKren kopia, badagokio.

3. Aurkezturiko ekintza proiektuaren gastu eta diru-sarreren aurrekontua.

4. Eusko Jaurlaritzaren Elkarte eta Entitateen Erregistroan izena emanda dagoela, badagokio, eta Udal Erregistroan (gaur egun sorrera-fasean) izena emana dagoela dioen Ziurtagiria.

5. Kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.

6. Eskabidean jasotako zinpeko aitorpena, inguruabar hauek egiaztatuko dituena:

— Helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk eskatu eta, hala badagokio, jaso direla adieraztea, edozein administraziotatik edo erakunde publiko zein pribatutatik etorriak direla ere.

— Pertsona edo erakunde eskatzaileak ez izatea zigor administratibo edo penalik laguntza publikoak lortzeko, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean zehaztutakoarekin bat etorriz.

— Eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla, eta dirulaguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak betetzen dituela.

Udalaren esku dauden datuen edo bitartekaritzarako plataformaren bidez eskatuko diren zerbitzuak:

GFA: zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra: Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehazten diren baldintzak.

*8. Emateko prozedura.*

Dirulaguntzak norgehiagoka-prozeduraren bidez emango dira, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.1 artikuluaren arabera. Horretarako, aurkeztutako eskabideak alderatuko dira, haien arteko lehentasun-ordena ezartzeko, 12. artikuluan ezarritako hautaketa- eta balorazio-irizpideak kontuan hartuta.

*9. Instrukzioa.*

Gauzatzea eta proposamena.

1. Festa saileko talde teknikoari dagokio deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen kudeaketa-lanak burutzea. Eskaerak Kultura, Festa, Gazteria, Euskara eta Hezkuntza Batzorde Txostengileak aztertu eta ebaluatuko ditu, eta honek ebazpen-proposamena prestatuko du.

2. Dirulaguntzen ebazpen proposamena edo behin-behineko ebazpenaren proposamena interesatuei jakinaraziko zaie, eta egoki iritzitako alegazioak egiteko hamar eguneko epea emango zaie.

los datos necesarios para comprobar el cumplimiento de las condiciones requeridas en las Bases Generales y especificas. No obstante, el solicitante tiene derecho a oposición y en caso de oponerse, deberá justificar las razones de su oposición (art. 21 del Reglamento UE 2016/679 de Protección de Datos).

Con carácter general, junto a la solicitud (Modelo normalizado de solicitud), deberá presentarse la siguiente documentación:

1. Fotocopia del DNI del solicitante y/o representante.

2. Fotocopia del CIF de la entidad, en su caso.

3. Presupuesto de gastos e ingresos del proyecto de actividades presentado.

4. Certificado de inscripción en el Registro de Asociaciones y Entidades del Gobierno Vasco, en su caso. y de inscripción en el Registro municipal (en este momento en fase de creación).

5. Documento que acredite la titularidad de la cuenta corriente.

6. Declaración Jurada incluida en la solicitud que se acreditarán las siguientes circunstancias:

— La solicitud y, en su caso, la obtención de subvenciones, ayudas, ingresos u otros recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes tanto públicos como privados.

— No hallarse la persona o entidad solicitante sancionada administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de ayudas o subvenciones públicas o no estar incursa en alguna prohibición legal que inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

— Que son ciertos los datos contenidos en la solicitud y documentación que le acompaña y que cumple con los requisitos establecidos en la normativa vigente para ser beneficiario/a de estas subvenciones.

Servicios que se solicitarán mediante la plataforma de intermediación de datos o datos que obran en poder del ayuntamiento:

DFG: Consulta de estar al corriente de obligaciones tributarias.

Tesorería General de la Seguridad Social: Consulta de estar al corriente de la obligaciones de la Seguridad Social.

La presentación de solicitudes supone la aceptación expresa y formal de las condiciones que definen las bases de la presente convocatoria.

*8. Procedimiento de concesión.*

Se concederán las subvenciones mediante el procedimiento de concurrencia competitiva según el artículo 22.1 de la Ley General de Subvenciones. A estos efectos, la concesión se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de selección y valoración fijados en el artículo 12.

*9. Instrucción.*

Instrucción y propuesta.

1. Corresponderá al grupo técnico del Departamento de Fiestas la realización de la instrucción de las ayudas previstas en la presente convocatoria. Las solicitudes serán estudiadas y evaluadas en la correspondiente Comisión Informativa de Cultura, Fiestas, Juventud, Euskara y Educación, que realizará una propuesta de resolución.

2. Se realizará la notificación de la propuesta de resolución o resolución provisional a las personas interesadas concediéndoles un plazo de diez días para la presentación de alegaciones.

EK\CV GAO-I-2025-00391

Festen jarduera-programaren prestaketa lanak eta antolaketa errazteko helburuarekin interesdunei ebazpenak hitzez jakinaraziko zaizkie, eta espedientean hauen emaitza egiaztatuko da. Ondorio horietarako, espedientea izapidetuko duen teknikariak dagokion diligentzia emango du.

3. Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpenaren proposamena egingo da; eta hor zehaztuko da dirulaguntza zein eskatzaileri ematea erabaki den, eta dirulaguntzaren zenbatekoa. dirulaguntza hori, hura jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiei emango zaie, eta beraz, behin-behineko zerrenden ebazpenaren aurka aurkeztutako alegazioak onartu egingo balira, behin betiko zerrendetako diru-kopuruetan aldaketak gerta daitezke.

4. Adierazitako epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko ebazpen horrek behin betiko izaera hartuko du.

*10. Ebazpena.*

1. Behin betiko proposamen ebazpena onetsi ondoren, Alkatetzak prozedura ebatziko du oinarrietan dioenaren arabera arrazoitutako ebazpen baten bidez. Prozeduran akreditatuta egon beharko dute ebazpenerako erabili dituen oinarriak.

2. Ebazpenean berariaz jakinaraziko da gainontzeko eskaerak gaitzetsi egin direla, beste eskaerarik balego, behintzat.

3. Ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da dirulaguntza deialdia argitaratzen den egunetik hasita. Aipatutako epean ebazpenik ez balego, aurkeztutako eskaera atzera bota dela adierazi nahiko du.

*11. Dirulaguntzen kopurua eta ordainketa.*

Programa bakoitzari emango zaion dirulaguntzaren zenbatekoa, dirulaguntzetarako dagoen diru-kopuru osoa programek puntutan lortu duten balorazioaren arabera proportzioan banatzetik aterako dena izango da.

Dirulaguntzaren zenbatekoa inolaz ere ez da izango –hura bakarrik hartuta edo beste Administrazio Publikoek, edo beste Erakunde publiko eta pribatuek emandako laguntza edo dirulaguntza batekin batuta– onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

Ordainketa bakar bat egingo da, ebazpena onartu ondoren. Ordainketa aurreratua izango da, kontuan hartuta dirulaguntzen erakunde onuradunek urtean zehar egingo dituzten ekintzak direla diruz lagungarriak.

Emandako dirulaguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, erakunde edo pertsona onuradunak adierazitako kontu korrontean.

Diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa diruz lagun daitekeen inbertsio balioaren % 100 izango da eta zenbateko zehatza izango da, ez kostu osoaren ehuneko edo frakzio bat.

Ematen den dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuen dirulaguntzekin edo laguntzekin batuta, ezin izango da onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa izan.

*12. Balioespen irizpideak.*

Aurkeztutako programak baloratzeko erabiliko diren irizpideak honako hauek izango dira:

a) Proposatutako programaren ezaugarriak: 70 puntu gehienez ere, ondorengo arloak kontuan izanik:

1. Proposatutako programak egindako ibilbidea eta hura finkatu den.

2. Dedikazioa eta giza-taldea.

3. Parte-hartzaile kopurua.

4. Programak gizartean lortutako hedapena, auzoaren bizitzan izandako eraginaren arabera.

Con objeto de facilitar los preparativos y la organización del programa de actividades festivas a los interesados se les notificará verbalmente la propuesta de resolución, haciendo constar en el expediente el resultado de las misma. A estos efectos el técnico que instruya el expediente emitirá la diligencia correspondiente.

3. Examinadas las alegaciones en su caso presentadas, se formulará propuesta de resolución definitiva que deberá expresar la relación de personas solicitantes para las que se propone la concesión de la subvención y su cuantía. La subvención se concederá entre todos los que hayan cumplido las condiciones; por lo tanto, en caso de que se aprueben las alegaciones presentadas ante la resolución de las listas provisionales, pueden haber cambios en las cantidades de las listas definitivas.

4. En caso de no existir alegaciones en el plazo indicado, la resolución provisional se convertirá en definitiva.

*10. Resolución.*

1. Una vez aprobada la propuesta de resolución definitiva, la Alcaldía resolverá el procedimiento mediante resolución motivada de conformidad con lo que dispongan las bases, debiendo quedar acreditados en el procedimiento los funda- mentos de su resolución.

2. La resolución hará constar de manera expresa la desestimación, en su caso del resto de las solicitudes.

3. El plazo máximo para resolver y notificar será de seis meses desde el día en que se publique la convocatoria. La falta de resolución en el plazo indicado supondrá la desestimación de la solicitud presentada.

*11. Cuantía y pago de las subvenciones.*

El importe de la subvención que se otorgará a cada programa será el resultado de distribuir proporcionalmente el importe total de las ayudas en base a la valoración en puntos de los programas.

El importe de la subvención que se conceda no podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras Administraciones Públicas, o de otras entidades públicas o privadas, supere el coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario.

El abono se realizará en un solo pago una vez aprobada la resolución, dicho pago será un pago anticipado teniendo en cuenta la acitividad anual a realizar por las entidades beneficiarias de estas subvenciones.

La subvención concedida será abonada, mediante transferencia bancaria, en la cuenta corriente señalada por la entidad o persona beneficiaria.

La cuantía máxima subvencionable será hasta el 100 % del valor de la inversión subvencionable ya que la cuantía subvencionable será un importe cierto y no un porcentaje o una fracción del coste total.

El importe de la subvención que se conceda no podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras Administraciones Públicas, o de otras entidades públicas o privadas, supere el coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario.

*12. Criterios de valoración.*

Los criterios que serán aplicados para la valoración de los programas presentados son:

a) Características del programa propuesto: Un máximo de 70 puntos, teniendo en cuenta los siguientes aspectos:

1. Trayectoria y afianzamiento del programa propuesto.

2. Dedicación y equipo humano.

3. Número de participantes.

4. Alcance social del programa según su impacto en la vida del barrio.

EK\CV GAO-I-2025-00391

5. Udalaren ekimenetan parte hartzea.

b) Proposatutako programaren interesa: 30 puntu gehienez ere, ondorengo arloak kontuan izanik:

1. Auzoaren sustapena.

2. Gizarte-balioen sustapena.

3. Esku-hartzeko praktikak ezartzea.

*13. Onuradunaren betebeharrak.*

Emandako laguntza justifikatzeko, erakunde onuradunek Azpeitiko Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 6. artikuluan adierazitako bete-behar orokorrak bete beharko dituzte.

Edonola ere, onuradunak hauek agertu beharko ditu:

1. dirulaguntza ematea oinarritzen duen egoeran jarduera egitea edo jokabidea hartzea.

2. Jarduera egiten ari dela edo jokabidea hartu duela frogatzea, bai halaber laguntza emateko edo horretaz gozatzeko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela.

3. Diruz lagundutako jarduera burutzeko behar diren baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.

4. Diruz lagundutako jarduera burutzeko garaian sortzen diren hondakinak modu egokian kudeatu beharko dira; hau da, gaika sailkatuak izan beharko dute eta horretarako aurreikusita dauden guneetan edota edukiontzietan utzi.

5. Entitate laguntza-emaileak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea.

6. Jasotako dirulaguntza itzuli beharko du onuradunak, laguntza hori emateko ezarritako baldintzak ez baditu betetzen, edota jasotako diru-kopurua gauzatu duen jardueraren kostua baino handiagoa bada.

7. Espedientea izapidetzen ari den departamenduak, Udalaren Kontu-hartzaileak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste organo eskudunen batek eskatutako informazioa emateko bete beharra du onuradunak.

*14. Egindako jarduera egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa eta justifikatzeko epea.*

Erakunde onuradunak behartuta daude festa programa amaitzen denetik (programan zehaztuko da data hori) hilabeteko epea baino lehen aurkeztera ondoren zehaztuko diren agiriak:

a) Diruz lagundutako jardueraren deskribapena.

b) Fakturak edo merkatuko trafiko juridikoan edo administrazioan pareko froga balioa duten gainerako dokumentuak eta beste gastu batzuen egiaztagiriak –aurreko paragrafoan aipatutako zerrendakoak–; eta, hala badagokio, ordainketa egin dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

c) Sarreren eta gastuen benetako likidazioa (gerta daitezkeen gainfinantzazioen jarraipena egiteko).

Egin beharreko justifikazioa edota txostena zehaztutako epean ez aurkezteak automatikoki ekarriko du dirulaguntzaren ezestea, edota jasotako diru-kopurua itzuli beharra.

*15. Dirulaguntzen bateragarritasuna.*

Oinarri hauetan jasotako dirulaguntzak bateragarriak izango dira Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek xede berarekin emandako dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, hurrengo lerrokadan xedatutakoari kalterik egin gabe.

dirulaguntzen zenbatekoak ezin izango du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez bakarka ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Azpeitia, 2025eko urtarrilaren 17a.—Nagore Alkorta Elorza, alkatea. (391)

5. Participación en las iniciativas del Ayuntamiento.

b) Interés del programa propuesto: Un máximo de 30 puntos, teniendo en cuenta los siguientes aspectos:

1. Promoción del barrio.

2. Promoción de valores cívicos.

3. Aplicación de prácticas de participación.

*13. Obligaciones del beneficiario.*

A efectos de justificación las entidades beneficiarias deberán cumplir con las obligaciones generales establecidas en el artículo 6.º de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Azpeitia.

En todo caso, el beneficiario tendrá:

1. Realizar la actividad o adoptar el comportamiento en la situación que fundamenta la concesión de la subvención.

2. Acreditar la realización de la actividad o la adopción del comportamiento, así como el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinen la concesión o disfrute de la ayuda.

3. Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para la realización de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.

4. Los residuos que se generen en la realización de la actividad subvencionada deberán ser tratados de forma adecuada; es decir, deberán ser clasificados por materias y depositados en los lugares y/o contenedores previstos para ello.

5. El sometimiento a las actuaciones de comprobación.

6. La obligación de reintegrar la ayuda en caso de incumplimiento de las condiciones establecidas para la concesión de la ayuda o subvención, o del exceso obtenido sobre el coste de la actividad desarrollada.

7. La obligación de facilitar cuanta información le sea requerida por el Departamento que tramita el expediente, la Intervención del Ayuntamiento, el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas u otros organos competentes.

*14. Documentación a presentar para la acreditación de la actividad realizada y plazo de justificación.*

Las entidades beneficiarias estarán obligadas a presentar en el plazo de un mes desde la finalización del programa de fiestas (fecha que se indicará en el programa) la documentación que, a continuación, se establece:

a) Descripción de la actividad subvencionada.

b) Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa y justificantes de otros gastos, incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior y, en su caso, la documentación acreditativa del pago.

c) Liquidación real de los ingresos y gastos (a fin de verificar posibles sobrefinanciación).

La falta de justificación y del informe pertinente en el plazo que se señale producirá la obligación de devolver la cantidad subvencionada y no justificada.

*15. Compatibilidad de las subvenciones.*

Las subvenciones recogidas en estas bases serán compatibles con las subvenciones, ingresos o recursos concedidos e con el mismo objeto por otras administraciones u organismos púbicos o privados del Estado, de la Unión Europea o de la comunidad internacional, sin perjuicio de lo dispuesto en el siguiente párrafo.

El importe de las subvenciones en ningún caso podrá superar el coste de la actividad subvencionada, ya sea aisladamente o sea en concurrencia con otras subvenciones, ayuda, ingresos o recursos.

Azpeitia, a 17 de enero de 2025.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (391)

EK\CV GAO-I-2025-00391